

Tolosako 31. Abesbatza Lehiaketa

Ruth Godoy • MADRIGALISTA ABESBATZAKO ZUZENDARIA •

«Ahotsen teknikaz eta soinuaren edertasunaz asko kezkatzen gara Txilen»

Joxemi Saizar / Tolosa

LEHEN aldiz 31 urteetan Txileko abesbatza bat entzuteko aukera dugu aurten Tolosan. Santiagoko unibertsitate bateko abesbatza da, Madrigalistak UMCE izena du, eta Ruth Godoyek zuzentzen du. Atzo polifoniar kantatu ondoren, gaur arratsaldean Folklore Sailean parte hartuko du, eta bihar Santurtziko San Jorge elizan ariko da 20:30etan.

■ 1992an sortu zenuen abesbatza. Nola?

Hezkuntza Zientzietako Unibertsitate Metropolitano-ko Musika sailean gaude gu, eta Ertainetako irakasle asko daude abesbatzan. Ikasle ohiak dira gehienbat, eta horien artean onenak aukeratuz, ganbera taldea sortu genuen, eta gero zabalitzen eta ahotsa hobetzen joan zen.

■ Zein egitarau aukeratu duzue hona etortzeko?

Zailena erreperitorioa aukeratzeko da. Orain ez nago ziur aukeratu duguna egokiena den ala ez. Gainera, lehiaketan arau edo oinarri batzuk daude.

■ Atzo Polifonia Sailean kantatu zenuten. Zer eskaini zenuten?

Herrialde berria da Txile, ez dugu Errenazimendu garaiko musikarik ia. Orlando di Lasso europar unibertsalaren *Magnificat sei ahotsetara* kantatu genuen; oso polita da, kontrapunto asko du, ahotsen ezaugarri guztiak erakus daitezke, gregorianoan. Erromantizismoko beste obra europar bat eskaini genuen, Brucknerren *Virga Jesse*. Autore hau koro handientzat da, baina txiletarrok ahots eta birika onak ditugu abesteko. Musika garaikidetik Garcia Lorcaren letra duen *Arbolé, arbolé*, Oltrarena, espainiar bat sartzeagatik. Gure lurretik, *En los bosques* Pablo Nerudaren sonetoa ekarri genuen. Ondo idatzia dago; kontrapunto dezente du, ahots zabalera handia du, poetikoa eta lasaia da. Gero behartua, Bustoren *O Magnum Mysterium*, oso eraginkorra.

■ Gaur arratsaldean Folklore Sailean abestuko duzue. Zer prestatu duzue?



GARI GARAIALDE

Oinarrien arabera, gure herrialdeko obrak eta euskal kantu bat interpretatu behar dugu. *Lo hadi ainguria* oso polita da, oso espresiboa. Beste euskal kantu bat prestatu behar genuen, eta niri musika garaikidea gustatzen zaidanez, Javier Bustoren *Zutaz* amodio kantua herri musikan sar zitekeen galdetu nuen, eta baietz erantzun zidaten. Bere eraikuntza elaboratuagoa da, ez da hain herrikoia. Normalean kantu tradizionalak xumeagoak, erritmikoagoak, errepikarriagoak izaten dira. Askok gustatu zait. Busto konposatzailea asko gustatzen zait. Hiruzpalau obra desberdin ekarri nahi izan ditugu. Bat iparraldekoa, *Caliche* (kresala esan nahi du); bestea erdialdekoa, *La naranja nació verde*, *Opa opa* Pascuako uhartekoa (ia polinesikoa, oso sentzuala); eta Violeta Parra folklorista txiletar eza-gunaren *Gracias a la vida*

«Txilen asko kantatzen da; hainbat mailatako abesbatzak daude, eta orain abesbatza federazio bat dugu»

(polita, adierazkorra, poesia oso esanguratsua).

■ Nola prestatu dituzue euskal kantuak?

Santiagoko Euskal Etxean galdetuz. Baina hemen jakin dugu desberdintasun batzuk daudela ahoskatzean. Hemengo laguntzaileek zuzenketa batzuk egin dizkidate, Iparraldeko euskaraz delako.

■ Zein da abesbatzen maila Txilen?

Askok kantatzen da. Maila desberdinetako abesbatzak daude: haurrenak, langileak, erlijiosoak, unibertsitatekoak, irakasleenak... Topaketa ugari dituzte sail bakoitzean. Orain abesbatza federazio bat dugu. Talde profesional bat ere badago, Udal Antzokikoa, denboraldi ofizialean opera abesten du. Europara talde asko etorri dira eta emaitza onak lortu dituzte, baina Tolosan ez da inor izan.

■ Zein da Latinoamerikako herrialde onena abesbatza mailan?

Zaila da esatea. Argentinak oso abesbatza onak

ditu. Venezuelak lehiaketa asko irabazten ditu kalitate handirik izan gabe, baina musika oso erakargarria da eta ondo egiten dute, erritmo biziekin. Kuban ere bai, noski. Exaudi taldea hemen eza-gutzen duzue. Bere musika ederra da. Gurea desberdina da, eta beldur naiz. Oso desberdinak gara venezuelarrekin edo kubatarrekin konparatuta, lasaiagoak, soilagoak gara, ez dugu beraien txispa. Abesbatza bezala ez gara musika folklorikoan adituak, musika kultura egiten dugu batez ere.

Gure konposatzaileek formazio europarra dute, eta ez dago desberdintasun handirik musikan. Baina beste musika horrek Afrikako indigene eragina du eta oso aberatsa da. Ahotsen teknikaz eta soinuaren edertasunaz gehiago kezkatzen gara Txilen.

24.000 ikaslek parte hartuko dute Eskolako Kontzertuak zikloan

■ Gaurtik martxoa bitarte egingen dituzte, Berriozarren

Eduarne Elizondo / Iruñea

ESKOLAKO Kontzertuak zikloa antolatu du Nafarroako Gobernuak, zazpi-garren urtez, Pablo Sarasate Orkestraren eta izen bereko kontserbatorioaren laguntzaz. Aurten, bi egitarau ezberdin prestatu dituzte antolatzaileek, bat Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, eta, bestea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat

Gazteenentzako egitarauan hiru ipuin musikalki izanen dira. Musikariekin batera, propio prestatutako narratzaileak ariko dira, musika eta ipuinak haurrei errazago helarazteko asmoz. *Peer Gynt*, *Eguzki mozkorra* eta *Jostuntxo ausarta* dira lehen egitarauko ipuinak. Lau-rak Pablo Sarasate Orkestrak eskainiko ditu, *jostuntxo ausarta* izan ezik, obra hori Pablo Sarasate Kontserbatorioko Orkestrak joko baitu.

12 urtetik 15 urtera bitarteko haurrentzako egitarauaren baitan, bestalde, Franz Josef Haydn konpositorearen figura aztertuko dute ikasleek, *haydnen legatua* izenburuko obraren bitartez. Lan hori Pablo Sarasate Orkestrak emanen du. Egitarauko kontzertu guztiak Berriozarko Mendialdea ikastetxean izanen dira, gaurtik datorren martxoaren 17a bitarte, euskaraz eta gaztelaniaz, eta, denera, Nafarroako 24.000 ikasle inguruk parte hartuko dute.

Eskolako Kontzertuekin batera, familia osoarentzako emanaldiak ere prestatu dituzte aurten, egitarau berarekin.

gaurko egitaraua

Polifonia: Pro Musica (Hungaria), Norddeutscher Figuralchor (Alemania), Ljubljanski Madrigalisti (Eslovenia), Egle (Lituania), De Profundis (Hungaria).

Folklore: Coro Madrigalista (Txile), Egle (Lituania), De Profundis (Eslovenia), Stord Con Spirito (Norvegia), Norddeutscher Figuralchor (Alemania).



**HAUR PROGRAMAZIOA
EUSKARAZ**

GAYARRE ANTZOKIA

Urriak 30; larunbata 12:00



LA LUNA TALDEA
"Elmer, elefantea"